

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresak behar izango dituen funtsezko baliabideak bi taldeetan banatzen dira: ukigarriak eta ukiezinak. Ukigarrien artean fisikoak eta finantza baliabideak fisikoak daude. Era berean, ukiezinaren artean, baliabide intelektualak eta giza baliabideetan banatuta daude.

Baliabide ukigarriak

Baliabide ukigarrien artean, baliabide fisikoak eta finantza-baliabideak daude.

Baliabide fisikoak gure enpresen bulegoak izango dira eta barruan egongo diren makinak, gure enpresa funtzionamenduan mantentzeko: ordenagailuak, mugikorak, hodietako elektrizitatea kudeazio tresnak (kuadro-elektroa), tximista-orratzak, erositako lurra tximistorratzak eraikitzeke, tximistorratza bera eta osatzen dituzten zatiak, elektrizitatea garraiatzeko behar diren hodi handiak.

Finantza-baliabideak behar izango dugun kapitala da. Diru-iturrietan azaldu dugun bezala, hainbat iturrietatik lortuko dugu behar den dirua proiektu hau aurrera eramateko. Hasieran "crowdfunding" eta gure poltsikotik ateratako dirua erabili behar izango da hasierako inbertsioa egiteko. Enpresaren hasierako pausuak ematea oso gogorra izango da, baina hori gainditzean bidea izugarri erraztuko da.

Baliabide ukiezinak

Baliabide ukiezinaren artean giza baliabideak eta baliabide intelektualak daude:

Giza baliabideak izango dira gure fabriketan tximistorratzak eraikitzeaz arduratzen diren langileak. Haien lana mekanikoa izango denez, ez da behar goi mailako ikasketak duten langileak.

Baliabide intelektualak berriz gure enpresan garrantzi handia izango duen sektorea da. Adibidez, ingeniariak edo ikertzaileak. Jakiteko non produzitu behar diren osagaiak dirua aurrezteko, zer nolako garraioa den egokiena leku batetik bestera eramateko beharrezko materialak, errendimendua %100 izateko tximistorratzen neurria eta non eraiki behar diren zehaztea. Gainera, baita proiektuaren bideragarritasuna jakitea ere beharrezkoa da. Gure bulegoetan lan egingo dute eta baliabide fisikoaz baliatuz edozein motatako saiakuntzak edo probak egiteko aukera izango dute.